



ARMAGINTZAREN MUSEOA

2020ko TXOSTENA

AURKIBIDEA

0. 2020ko EGUTEGIA

1. BISITAK

- 1.1. Museoko bisitariak
- 1.2. Webguneak 2020an izandako bisitariak

2. JARDUERAK

2.1. Funtsen dokumentazioa: Euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. Bildumak zaintzea eta zaharberritzea

- 2.1.1. Museoaren fondoak euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. XII. fasea 2020. urtea.
- 2.1.2.-Fondoan zaharberritze lana 2020

2.2. Edukiak zabaltzeko programa

2.2.1. Bisita gidatuak

2.2.2. Tailer eta ekitaldiak

- Guardia Zibilaren 175.urteurrena erakusketa eta hitzaldia
- EITK 3.urteurrena
- Calibre 16 erakusketa
- Alfa enpresak 100.urteurrena erakusketa ALFA 1920-2020
- Europako Ondare Jardunaldiak

2.2.3. Web site berria

2.2.4. Audio gidak Mugikorretik

2.2.5. Piezak 360º-tan digitalizatzea

2.2.6. Aurrekargako armen simulagailua

2.2.7. Hileko pieza

2.2.8. Armei buruzko ikusentzunezko grabaketak.

2.2.9. Zabalkuntza eta publizitatea

3. FUNTSEN KUDEAKETA

4. PRAKTIKAK

5. TREBAKUNTZA

5. BALANTZEA

0. 2020ko EGUTEGIA

URTARRILA -ENERO

OTSAILA-FEBRERO

MARTXOA -MARZO

	1	2	3	4	5					1	2							1		
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	2	3	4	5	6	7	8
13	14	15	16	17	18	21	10	11	12	13	14	15	16	9	10	11	12	13	14	15
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	16	17	18	19	20	21	22
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29		23/30	24	25	26	27	28	29

APIRILA-ABRIL

MAIATZA-MAYO

EKAINA-JUNIO

	1	2	3	4	5					1	2	3	1	2	3	4	5	6	7	
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
13	14	15	16	17	18	21	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	29	30					

UZTAILA-JULIO

ABUSTUA -AGOSTO

IRAILA-SEPTIEMBRE

	1	2	3	4	5					1	2		1	2	3	4	5	6		
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
13	14	15	16	17	18	21	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
27	28	29	30	31			24/31	25	26	27	28	29	30	28	29	30				

URRIA-OCTUBRE

AZAROA- NOVIEMBRE

ABENDUA-DICIEMBRE

		1	2	3	4						1		1	2	3	4	5	6		
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
26	27	28	29	30	31		23/30	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			

Ordutegia

- Urritik ekainera : asteazkenetik larunbatera 16:00-20:00; igandeetan 10:00-13:00
- Uztaila eta iraila: asteartetik ostiralera 16:00-20:00.

Abuztua: asteartetik ostiralera 10:00-13:30.

	Museoa itxita		3 ORDU IREKITA.
	4 ORDU IREKITA		3,5 ORDU IREKITA

1. 2020ko BISITAK


1.1. Museoko bisitariak

2020ko jarduera guztia pandemiak eta haren lehen ondorioek markatu dute: aldi baterako instalazioen konfinamendua eta itxiera. Horiek gaindituta, mugikortasun-mugak, turismoaren beherakada eta urruntze soziala, edukiera-mugak eta abar etorri dira. Horrek guztiak jarduera txikiagoa eragin du museoan, eta bisitari-kopurua nabarmen jaitsi da.

2020. urtean **3.101** pertsonak bisitatu dute museoa, bisita libreak edo taldean, aurreko urtean baino % 45,42 bisitari gutxiago izan dira; izan ere, 2019an 5.681 pertsonak bisitatu zuten museoa.


Gaur egungo egoera ikusita, ehuneko hori oso positiboa da; izan ere, 2020an egindako aldi baterako bi erakusketek bisitari-kopuru handia izan dute, eta bisitarien % 53,59 baino gehiago izan dira.

Bisitarien banaketa aldatu egin da pandemiaren eraginez. Normalean, kurba goranzkoa izaten da urtarrilean, otsailean eta martxoan (bisitari gehien izaten urte saioa izan ohi da), eta 2020an, berriz, Kalibre 16 erakusketaren ondorioz bisitari kopuru oso handiarekin hasi zena, beheranzkoa izan da martxoan itxi arte. Berrirekitzearen ondoren, publikoak gora egin du pixkanaka, iraileko eta urriko hilabeteetan izugarri igoz, irailaren 25ean ireki zen eta urriaren 25era arte zabalik egon den Alfa 1920-2020 erakusketari esker. Urriaren 1.162ko errekorra lortu zen, azaroko eta abenduako hilabeteetan bisitari kopurua nabarmen jaitsi zen, pandemia larriagotzearekin batera.




Hiilabetez hilabetez bisitari kopurua (publiko orokorra bisita bere kabuz)

Bisitarien adinari dagokionez, 4 multzotan sailkatzen dira, sarrera-motaren arabera: haurrak (16 urte arte), gazteak (17-26 urte), helduak (27-65 urte) eta erretiratuak (65 urte baino gehiago). Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, bisitari gehienak helduak dira, % 73. Logikoki haur edo gazte kopurua nabarmanen jaitsi da, taldeko eskola-bisiten murrizketen ondorioz. 2019an % 20,6 izatetik 2020an % 13 izatera igaro da. Erretiratuen ehunekoa ere izugarri jaitsi da, % 36,3tik % 14ra.



Bisitariena banketa adinaren arabera

Generoari dagokionez, 1.653 emakume joan dira museora, eta 1.440 gizon. Gizon-emakume proportzioa, kasu honetan, ohikoa da orokorrean inguruko museoetan, non emakumeen kopuruak gizonenak gainditzeko joera dagoen. Armagintzaren Museoan alderantziz gertatu ohi da. Aldaketa hau, agian, izan daiteke ALFA 1920-2020 erakusketa emakumeentzat bereziki erakargarria izan delako, josteko makinaren langile eta erabiltzaile gehienak emakumeak dira eta.



Bisitarien banaketa generoaren arabera

Bisitariak museoa bisitatzera daramaten informazio-bideari dagokionez, datuek agerian uzten dute, berriz ere, turismo-bulegoek ez dutela eragin handirik arlo horretan, bisiten % 1 baino ez baitira informazio-puntu horretatik ateratakoak. Bulego horiek funtsezkoak dira museo-baliabide baterako. Ziur asko, horietako bat Eibarren ez egotea eta mugikortasuna murriztu izana dira ehuneko hori txikia izatearen arrazoiak.

Interesgarria da ikustea % 7 errepikatzen duten bisitariak direla, eta % 13 beste pertsona batek gomendatuta joaten direla. Bi tasa batzen baditugu, % 20 itzultzera animatzen da edo beste pertsona batzuei bisita egitea gomendatzen die. Datu baliotsuak dira, bisitariak hautemandako kalitatearekin lotuta baitaude.

Publizitateak (komunikabideetan, Interneten eta publizitate-liburuxkan) duen eragina % 60koa izan da, iaz baiño % 34 gehiago, eta oso positibotzat jo behar da. Horrek erakusten du 2020an egindako publizitate kanpainak eraginkorrak izan direla.

Sare sozialak, aldiz, ez dira erabiltzen ari, eragin txikia baitute, nahiz eta aurten % 0,5etik %1era gehitu den. Anekdotikoa izaten jarraitzen du.




Informazio medioak

Bisita motari dagokionez, aurtan, bisitarien % 90 libreak izan dira, eta % 10, berriz, taldeka etorritakoak. Argi dago murrizketak direla horren arrazoia.

Bisitarien jatorriari dagokionez, **Eibartarrak** inoiz baino gehiago izan dira, museoko bisiten % 70.

EAEko hiru lurraldeetako bisitarien datuak gehitzen baditugu, % 89 Euskaditik datorrela ikusten dugu. Espaniako beste autonomia-erkidego batzuetako persona kupurua % 8 izan da (iaz % 30), eta bisita atzerritarrek % 3 izan ditugu.



Bisitariak jatorriari dagokionez

Urteko konparatiboa

Urteak	Bisitariak GUZTIRA	Kopurua	Irekitako egunak	Eguneko batezbesteko bisitariak
2007	5.221		275	18,98
2008	2.035		279	7,29
2009	4.360		274	15,91
2010	3.980		229	17,37
2011	3.549		226	15,70
2012	2.686		218	12,32
2013	2.637		223	11,82
2014	3.517		232	15,15
2015	4.832		230	21
2016	4.344		218	19,92
2017	6.199		231	26,83
2018	6.703		238	28,2
2019	5.681		238	23,86
2020	3.101		182	17,03
Guztira	58.935		3.211	18,38

1.2. Webguneak 2020an izandako bisitariak

Bilakaera bere osotasunean aztertuta, badirudi webgunearen aldaketak neurtutako parametro gehienak hobetu dituela, bisitena izan ezik. Inkoherentzia horrek esan nahi du aurreko urteetako bisita-kopurua gehiegi baloratuta egon daitekeela, eta bilatzaileetatik datozen robot eta bilatzaileen bisitengatik edo bisita "hutsengatik" azal daitekeela, bai eta bilatzailearen batetik webgunera sartzen ziren bisitariengatik ere, baldin eta zuzenean errebotatzen bazuten eta webgunea benetan kontsultatu gabe ateratzen baziren. Kontuan hartu behar da, halaber, armen datu-base zaharraren desagerpena, eta hura zenez gehien bisitatzen zen atala, horrek, berez, azal lezake bisitarien galera hori. Dena den, webgunearen aldaketaren ondorioz, Googlen posizionamendua galtzeagatik ere azal daiteke. Datozen hilabeteetan jarraipena egin beharko da webgunearen trafikoaren bilakaera ikusteko. Nolanahi ere, aipatu dugun bezala, parametro gehienek 2019ko datuekin alderatuta hobera egin dutela adierazten dute.

2020ko datu orokorrak

- Guztira 22.300 bisitari (2019ko %30 baino gutxiago)
- Guztira, webguneko 100.000 orrialde irakurri dira (2019ko kopuru berdina)
- Bisitaren iraupena 2:40 minutu (2019an baino % 67 gehiago iraun dute)
- Bataz besteko denbora orrialde bakoitzean 47 segundu (Aurreko urtearekin konparatuta % 2 inguru igo da)
- Saio bakoitzeko bisitatuko orriealdeak 4,43 (iaz baino % 43 gehiago)
- Bisitariaren hizkuntza: % 45 ES, % 30 EUS; % 15 EN eta % 10 FR.
- Trafikoaren % 50 Espainiatik dator; % 25 Estatu Batuetatik; % 5 Méxikotik; % 4 Argentinatik; % 2 Frantziatik; Brasil, Alemania, Erresuma Batua, Colombia eta Chile datoz ondoren.
- Teknologi aldetik: % 55 ordenagailuetatik eta % 45 mugikorretatik sartu dira Normalean mugikorretatik askoz bisita gehiago etorri beharko liriateke, baina pandemia dela eta agian bisita ugari etxeko tresnetatik etorri dira.
- Atalik bisitatuenak, ordena honetan: Ikerketa. Erakusketak, Bildumak, Bisitak

2. JARDUERAK

2.1. Funtsen dokumentazioa: euskarri informatikoan inbentario nahiz katalogazioa. Bildumen mantentze eta zaharberritzea.

2.1.1. Museoko funtsen erregistroa, inbentarioa, katalogazioa eta informatizatzea. XII. fasea. 2020 urtea.

Azken hamaika urteetan, Armagintza Museoak Eusko Jaurlaritzako ENSIME programaren barruan katalogatu du bere ondarea. Programaren helburua Euskadiko Museoen fondoan katalogoak harremanetan jartzea da, ahal den neurrian, maileguak errazteko eta bilduma ezberdinen ondarea besteei ezagutarazteko. 2014. urteko uztailetik aurrera sarean (<https://www6.euskadi.net/r46-emsime/es/v09aNucleoWar/ciucFNuevaConsulta.do>) kontsulta daiteke.

Armagintza Museoaren ondareen katalogazioan, pieza bakoitzeko fitxa bat betetzen da, non, xehetasunez, pisua, neurriak, materialak, kontserbazio egoera eta bestelako datu deskribatzaileak batzen diren. Era berean, egilea, funtzionamendua, historia eta harrerari buruzko datuak ere jasotzen dira. Fitxa guztietan piezaren argazkia txertatzen da. Fitxa bakoitzean katalogatutako funtsaren erregistro zenbakia adierazten da. Zenbakia bakarra da, beste inork ezingo du zenbaki bera izan. Objektua identifikatzeko, haren kokapena ezagutu, eta piezari buruzko gainontzeko datuak ezagutzeko balio du zenbaki honek.

Gaur arte, 11.500 pieza katalogatu dira museoan jasota dauden 15.000 pieza ingurutik, Katalogazioa ez da amaitu, eta bilduma handituz doa jasotako dohaintza, egindako erosketa nahiz utzitako piezekin; ondorioz, irekita dago.

Pieza bakoitzaren inbentarioa euskaraz eta gaztelaniaz egiten da, banan-banan aztertzen dira eta dokumentazioa bilatzen da erregistroko eremu batzuk osatu ahal izateko —batzuk zehazteko zailak izaten dira, fabrikazio tokia eta data, esaterako—. Edonola ere, lehentasuna ematen diogu ahalik eta pieza gehien erregistratu eta inbentariatzeari, eta ez pieza bakoitzaren datuetan sakontzeari, aparteko berezitasunik ez badauka behintzat. Informazioa Internet bidez bilatzen da, argitalpen espezializatuak kontsultatzen dira eta Eibarko eta eskualdeko armagintzaren eta industriaren esparruko profesionalen aholkularitza teknikoa ere bilatzen da.

Piezak horretarako egokiak diren kutxatan biltegitzen dira eta museoko biltegian gordetzen dira. Piezak zein artxibategiko armairu trinkoen kutxak eta apalak inbentarioko zenbakiaren bitartez identifikatzen dira.

2020an **258 pieza berri** katalogatu dira. Kopurua aurreko urteetako baino txikiagoa da; izan ere, alde batetik denbora asko eman da fitxen itzulpen-lanetan, eta, hala, handitu egin da euskarazko eta gaztelaniazko fitxen kopurua (oraindik ere lana dago egiteke), eta bestetik, eta 80 bat arma fitxatan dokumentatutako informazioaren EMSIME sartu dugu elebietan. Biltegia berrantolaketan ere lan egin dugu.

Museoko funtsak erregistratzeko, inbentariatzeko, katalogatzeko eta digitalizatzeko ardua Ereiten kultur zerbitzuen enpresak hartu du bere gain eta 381 ordu eskaini dizkio lan honi.

ERREGISTROAREN HANDIAGOTZE GASTUA.....12.447,27€

2.1.2. Funtsen garbiketa eta zaharberritze programa 2020

Hona hemen 2020. urtean Armagintzaren Museoa egin duen zaharberritze lana:

Urtarriletik martxora Iranzu Cabo zaharberritzailea izan du museoak lanean.

Haren lana Saiakuntza Bankuko hainbat pieza garbitzea eta piezak nahiz dokumentuak behar bezala biltegiatzea izan da.

MAK	Lambretta zaharritzeko materiala	227,37€
CTS	Zaharritzeko materiala	503,44€
KONTUS, S.L.	Nitrilo eskularruak	16,82€

Zaharberritzeko Materialen gastua 747,63€

Bestalde, kanpoko enpresa batzuek ondorengo objektuak zaharberritu dituzte:

Bi bizikleta eta LUME garbigailua zaharberritzea

Garbigailua

-Kontserbazio egoera:

Gainazala herdoilduta eta zenbait gunetan nikelzko bainua galdua zuen.

Plastiko eta gomazko zatiek gainazaleko zikinkeria zeukaten.

-Esku-hartzea

Gainazaleko zikinkeria altzairu-ilez garbitu da. Herdoila ere garbitu zaio eskuilarekin.

Xaboi neutroarekin garbitu dira gomazko eta plastikozko zatiak.

Bi bizikleta:

-Kontserbazio egoera

Gainazala oso zikina zuten biek, herdoilez betea eta zenbait gunetan pintura erabat galdua zuten. Grasa eta basa zeukaten gurpiletatik gertuen zeuden zatietan.

Esku-hartzea

Altzairu-ile eta eskuilaz gainazaleko herdoila kendu zaie.

Desmuntatu egin dira erabat eta zatiak banaka garbitu dira. Jarlekua xaboi neutroz eta eskuilaz garbitu dira. Narruari amaierako tratamendu bezala argizari mikrokristalinoa eman zaio. Pinturari ere babes gisa.

Gurpilen kubiartak aurrerago aldatzea baloratuko da, erakusketan jarri nahi izanez gero.

Lanak Goizane Aizpurua kontserbatzaile eta zaharberritzaileak egin ditu. Zenbatekoa: 1.210 €

Fondoen zaharberritzea gastua guztira.....1.957,63

2.2. Edukiak zabaltzeko programa

2.2.1. Bisita gidatuak

Taldeentzako bisita gidatuen urteko egitasmoa.

Balio eta helburuak:

- Heziketa eta entretenimendua: Historia eta industria ondareari buruz modu atsegina eta erakargarria aritzea.
- Historia, artea eta industria ondarea errespetatzeko beharrezko oinarrituta hezi eta nortasun kulturala indartzea.
- Bisitari bakoitzak dituen ezaugarri eta beharretara moldatutako arrazoibide erakargarri eta koherentea bermatzea.

Hau horrela izanik, honakoak hartzen ditugu kontuan:

- Bisitariaren profila: adina, jatorria, heziketa maila, zaletasunak
- Taldeak izan dezakeen jakin-mina edo motibazio desberdinak
- Taldearen izaera: familia taldeak, atzeritarrak, elkarteak, behar bereziak dituzten talde edo norbanakoak, erakunde ofizialetako ordezkariak bisitak, etab.
- Erakunde ofizialetara egindako bisitak

Bisitaren iraupena: 60 eta 75 minutu artekoa (taldearen beharrezko arabera).

Bista gidatuak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez eskaintzen ditugu.

Zuzendaritzak islatutako museo diskurtsoko oinarritzako kontzeptuak transmititzea da bisita gidatu bakoitzaren helburua. Gidariaren diskurtsoa, talde bakoitzaren ezaugarrietara (adina, kopurua, jatorria, etab.) eta interesetara egokitu da, honela, bisitariei ematen zaien mezua modu eroso eta atseginean jasotzeko lan eginez.

Ez da funtsezko aldaketarik egin bisita gidatuan, oraindik ere bi zatitan planteatzen baita: Eibarko Historia eta Arma Bilduma. Gidaren hitzaldia ezaugarrietara egokitu da (adina, kopurua, nazionalitatea, etab.) eta talde bakoitzaren interesetara, mezua modu atseginean eta konfiantzazko giroan transmititu dadin.


16 bisita gidatu baino ez dira egin; horietatik 13 ikastetxeetatik, elkarteetatik eta talde berezietatik etorritako taldeak izan dira, eta 3 bisitariarentzako bisita irekiak.

Bisitaren taula

1	10	URTARRILA	11:30	XABIER	GAZ	20	Escuela de Comercio
2	15	URTARRILA	9:45	ANDER	EUSK	29	LH4 Arrateko Andramari eskola
3	17	URTARRILA	14:00-14:45	ANDER	EUS	26	Iturburu ikastolako umeak
4	17	URTARRILA	14:30-15:30	NEREA	EUS	26	Iturburu ikastolako umeak
5	17	URTARRILA	14:45-15:30	ANDER	EUS	26	Iturburu ikastolako umeak
6	18	URTARRILA	18:30	ANDER	GAZ	12	Hilabeteko doako bisita Museoak eskainia
7	23	URTARRILA	12:00	ANDER	EUSK	16	ERMUA BHI
8	23	URTARRILA	12:00	XABIER	EUSK	16	ERMUA BHI
9	15	OTSAILA	17:00	ANDER	EUS	5	Hilabeteko doako bisita Museoak eskainia
10	15	OTSAILA	18:30	ANDER	GAZ	10	Hilabeteko doako bisita Museoak eskainia
11	17	OTSAILA	15:30	ANDER	ING	10	Grulla tallarraren bezeroak-Noruega
12	24	OTSAILA	11:00-12:00	ANDER	GAZ	28	Jubilatuen talde bat.
13	27	OTSAILA	14:30	ANDER	EUS	19	LH5/LH6 Arrateko Andramari eskola
14	4	MARTXOA	14:30-15:30	XABIER	EUS	26	Eibarko La Salle Ikastetxea - LH1 maila A eta B
15	4	MARTXOA	14:30-15:30	NEREA	EUS	26	Eibarko La Salle Ikastetxea - LH1 maila A eta B
16	7	MARTXOA	11:45	ANDER	GAZ	12	Familia bat


Ikustaldien kopurua oso txikia da; izan ere, pandemiaren ondorioz, bisita-kopurua % 21 jaitsi da aurreko urteko bisitekin alderatuta. Izan ere, taldeko pertsona-kopuruaren eta mugikortasunaren murrizketen ondorioz, martxoaren erdialdetik ez da bisita gidaturik egin.

Nolanahi ere, 307 pertsonak museoa taldean bisitatzea erabaki dute (urteko bisitarien % 9,9).



Taldeko bisiten hizkuntza

Hizkuntzari dagokionez, aurreko urteen tendentziak jarraitzen du. Bisita gehienak eukaraz izan dira, 10 (% 59); gasteleraz 6 (% 35); 1 ingelesez (% 6); eta frantsesez batere ez.



Bisitarien banaketa bisita gidatuan jatorriaren arabera

Urtean zeharreko banaketari dagokionez, ez du zentzu handirik 2020ko datuak aztertzea, salbuespenezkoak direlako, baina bisita guztiak urtarrilean, otsailean, martxoan eta urrian egin dira. Gainerako hilabeteetan ez da ezer egin.

Talde motari dagokionez, hainbat hezkuntza-mailatako (lehen eta bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa) eskola-taldeak izan dira. Elkarte eta enpresa batzuek ere parte hartu dute.

Bisita gidatuetan museoa bisitatzen duten pertsonen jatorriari dagokionez, gehienak Eibarkoak dira, baina aurreko urteetan baino askoz ere gehiago, mugikortasun-murrizketengatik (% 71,5, 2019an % 40,7 izan ziren), eta atzetik daude Bizkaiko edo Gipuzkoako beste puntu batzuetako bisitariak (% 17,2 eta % 5,8). Horrek esan nahi du museoa funtzio garrantzitsua betetzen ari dela Eibarko herritarren artean tokiko ondareari balioa emateko, eta zeharka babesten laguntzen duela, kohesio sozial eta identitarioko elementu gisa.

Hilean larunbat batean eskaintzen diren doako bisitak (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz) bertan behera geratu dira, eta horietako bat bakarrik egin da urtarrilean, 12 lagunek parte hartu dutelarik.

Bisita gidatuen bilakaera

Urte	Bisita kopurua
2007	36
2008	47
2009	43
2010	60
2011	41
2012	67
2013	36
2014	39
2015	72
2016	61
2017	110
2018	101
2019	75
2020	16

Guztira 16 bisita gidatu798,60€

2.2.2 2020ko Ekitaldiak eta tailerrak

“Guardia zibilaren 175 urteurrena” erakusketa eta hitzaldia

Gipuzkoako Guardia Zibilaren Komandantziak Armategintzaren Museoaren laguntza eskatu zuen erakundearen 175. urteurreneko ospakizunetan. Jose Luis Valenciagaren laguntzarekin, "Eibarko armak Guardia Zibilean" erakusketarako materiala utzi zen. Erakusketa hori 2020ko urtarrilaren 13tik 30era egin zen, Intxaurrendoko Guardia Zibilaren komandantzian. Era berean, erakusketaren inaugurazioa baino lehen, urtarrilaren 13an, hitzaldi bat egin genuen, 120 pertsona bertaratu zirelarik.



Museoaren 13. Urteurrena

Armagintzaren Museoaren XIII. urteurrena ospatzeko, urtarrilaren 16, 17, 18 eta 19an ate irekien jardunaldiak egin ziren, doako sarrerarekin.

Calibre 16 erakusketa

Urtarrilaren 17tik otsailaren 9ra **Calibre 16** izeneko erakusketa egin dugu.

Erakusketa hau Taco taldearekin elkarlanean antolatu zen. Talde hori artista mexikarren kolektiboa da, eta nazioarteko artistekin, espazioekin eta antzeko erakundeekin loturak sortzeko eta esperientzia estetikoak trukatzeko helburua du.

Lehenengo Eibarren eta gero Britainia Handian garatu den Calibre 16 proiektuak korrelatu plastiko bat eraiki nahi du, eraldaketa kulturalen eta ekonomikoen arteko lotura esploratzeko, bai eta aldaketa horiek, oro har, herritartasuna eta komunitate-
zentzua osatzean duten garrantzia esploratzeko ere.





Calibre 16 erakusketa Armagintzaren Museoa eta armagabetzearen deseraikitze inplizitua abiapuntutzat hartzen dituen erakusketa kolektiboa da. Termino hori ez da soilik biztanleria baten metraila kentzea, baizik eta printzipio hilgarri bati soilik dagokion diseinua duen makina bati funtzionaltasuna kentzeak errealitatearen adostasunari eragin simbolikoa eragiten dion kultura-tresnak asmatzea bultzatzen du.

Sormenezko berrikuspenetik manufakturazio-prozesura eta berreraikitze askera, **Calibre 16**. Armak egiteko tailer batetik gizarte bat armatzen duen tailer batera joateak dakarren birajearen berri ematea du helburu. Aurrekoa bi zentzutan aipatzen da: "Armatzea" harremanetarako eta elkarlanerako modu desberdinak antolatzeko

elkartzen diren gizabanako gisa, eta "armatzea" multzo horri ahal sinboliko, politiko eta ekonomikoak emateko modu gisa, ahalmen horiek autonomia ematen diotelako eta kudeatzeko aukera ematen diotelako. Horrela, eta berresleipen horren ondorioz, parte hartu zuten artistek dagozkien izenak interpretatu zituzten obrak egin zituzten, dela su-arma baten zati desberdinei, dela haren fabrikazio- edo proba-prozesuari. Talde kuratorialak termino horiek izendatu zituen eta sortzaileen artean banatu zituen, pertsona edo kolektibo bakoitzeko bana.

Parte ahartu duten artistak eta gaia: Mayté Angeles- Perdigoiak, Javier Fuentes-Pistoia, Paulina Franco- ProyeKtila, Leonora Serra- Gollete, Fernando Fuentes- Vaina, Gabriel Carrillo de Icaza- Cacha o empuñadura
Elizabeth de Jesús- Bala Rodrigo Flores Herrasti- Guardamonte Laura Elena Garduño- Corredera Anahí H. Galaviz- Armazón, Abraham Jiménez- Cilindro, Erick Bachtold- Kargadorea, Gorka Larrañaga- damborra, Vicente Jurado- Martill
Erakusketaren neurriengatik, Portaleko Erakusketa Aretoan egin zen.

BISITARI KOPURUA / Nº de asistentes	GUZTIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UMEAK	TALDEKA
	349	163	160	6	20
EGUNAK/Días	21				
EGUNEKO BATA BESTEKOA/ Promedio diario	16,6				
OIHARTZUN MEDIATIKOA PRENTSAN / Repercusión mediática prensa	Oso ona				
ARTIKULUA	El correo 19-1-20120 orrialde osoa Diario Vasco 19-1-20120 orrialde osoa El correo 15-1-20120 orrialde osoa Diario Vasco 15-1-20120 orrialde osoa E kultura 184 urtarrila 2020 eitb				
OIHARTZUN SOZIALA / Repercusión social	Oso ona				
EKINTZAREN KOSTUA/ Coste de la actividad	Muntaia:Arteztu.....3.509 Txartela: Ego print.....278,30 Errotulazioa Ideiak.....152,46 Aretoa zaintzea Astixa.....484 Artisten ostatua UNI.....837 Guztira.....5.260,76				
KOSTUA PARTAIDEKO/ Gasto por participante	15,07				

ALFA enpresak 100. Urteurrena erakusketa

ALFA 1920-2020

Irailaren 25etik urriaren 25era

Portaleko erakusketa aretoa



1920. urtea urte zaila izan zen hiri armaginarentzat. Lehen Mundu Gerraren amaierak eskarien erorketa bortitza ekarri zuen, biltegiak stockez beteta zeudela. Urte horretan bertan, gobernuak, pistolismoaren areagotzeaz eta atentatu anarkistek zekarten arriskuaz kezkatutik, lege berriak ezarri zituen, armen salerosketa eta jabetza mugatzen zituztenak. Orduan agertu ziren jabego gidak, zenbaitze sistema bateratua, eta guardia zibilari eman zion armak kontrolatzeko eskumena. Horrek kostuak handitu eta salmenta zailago bihurtzen zuen.

Krisialdiak, ezegonkortasuna eta grebak izan ziren urte osoan zehar, eta, ondorioz, Eibarko armaginek beren burua berrasmatu behar izan zuten, eta, aldi berean, beren teknologia- eta enpresa-ezagutzak negozio eta ekimen berrietan aplikatu behar izan zituzten.

1920ko urriaren 28an, greba luze baten ondoren, Orbea Hermanos enpresako sei langile ohik Espainiako lehen kooperatibetako bat sortu zuten, "Alfa su-armak ekoizteko Kooperatiba Sozietate Anonimoa", 300.000 pezetako kapital soziala zuena.

Ehun urte baino gehiago igaro dira egokitzapenak egin eta produktu berriak etengabe bilatzen **ERREBOLBERRETIK JOSTEKO MAKINARA ETA JOSTEKO MAKINATIK nekazaritzako makinetara, ziklomotorrera, artera, aeronautikara...**

Bere sorreraren mendeurrena ospatzeko eta bere ondarea zabaltzeko, Armagintzaren Museoak ALFA 1920-2020 erakusketa aurkeztu du Portaleko erakusketa aretoan. Kooperatibismoaren ezarpenean aitzindari izan den eta Eibar eta Euskal Herria gainditzen dituen enpresa baten historia eta bilakaera gogoratzeko erakusketa.

Erakusketaren bidez, Alfaren bilakaeraren haria jarraitu dugu, enpresa-talde handi bihurtu eta gaur egunera iritsi arte. Enpresaren ñabardura asko ezagutu ditugu. Eibarko bizimoduaren eragile sozial eta ekonomikoa izan da, eta 1.600 langile baino gehiago izatera iritsi zen bere merkataritza-antolaketarekin. Mundu zabalean ezaguna den josteko makina produktu enblematikoa zuen



ERAKUSKETAREN edukiak

Erakusketaren bi ardatzak

Enpresaren bilakaera historikoa.

Enpresek eboluzionatu egiten dute, dibertsifikatu, nazioarteratu, krisian sartu, eta berrasmatu. Irakurtzeko zailak diren multzo konplexuak dira. Haren garapen historikoa eskaini dugu; horrela errazago ezagutu dugu. Alfaren bilakaeraren haria jarraitu dugu enpresa-talde handi bihurtu eta gaurkotasunera iritsi arte.

Gaur egun askotan enpresa-kulturaz hitz egiten da. Zaila da zertaz ari garen jakitea, eta hori enpresaren historiak hitz egiten hasten garenean zehazten da.

Enpresaren bilakaeraren bidez, bilakaera historikoaren eta faseen berri ere eman da: gerra zibila, autarkia, desarrollismoa, krisia, birmoldaketa, XXI. mendeko erronka berriak.

Josteko makinak aldaketek ere lagundu digute aldaketa sozialak eta ekonomikoak aztertzen.

Gaurkotasuneko gaiei buruzko hausnarketa, enpresaren beraren eta ezarpenaren ikuspegitik.

- Enpresaren bilakaera historikoa: hastapenak, 1930eko hamarkadan Alemaniarekin izandako harremanak, gerra zibilean makinak konfiskatzea, gaur egun arte.

- Eibarren sortutako industria arkitektura eta paisaia.

- Lehenengo kooperatiba

PERTSONAIK: ENPRESABURU KOOPERATIBISTAK ETA LANGILEAK

Baliabidea: Bizitza-historiak. Bideo bat argitaratu zen, Youtuben eskuragarri, antzinako eta egungo lekukotasunak jasotzeko, eta langile ohiek fabrikaren eta enpresaren ikuspegi pertsonala kontatu zuten.

GLOBALIZAZIOA

Alfa josteko makinak mundu osora iristen dira. Familia guztiek josteko makina bat zuten edo izan nahi zuten.

DIBERTSIFIKAZIOA

Merkatura egokitzeko fabrikatu dituzten produktuak: armak, josteko makinak, mikrofusioa, nekazaritzako makineria.

ALFAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA

Udalekuak, Alfa etxeak, ikasketetarako laguntzak, bekak, Carlos Larrañagaren etxeak, hezkuntza, dirulaguntzak.

JAKINARAZI SALTZEKO: MARKA - PUBLIZITATEA

Markaren garrantzia. Alfa. Oraindik ere bada marka hori.

BERRIKUNTZA ETA EGITEN JAKITEA

Teknologia aplikatua eta patenteak

Makineria eta ekoizpen prozesua

Bulegoa: Bull sistemaren informatizazioa (jardunean jarraitzen duen enpresa frantsesa)

LANAREN ANTOLAKETA HAUTAKETA-PROZESUAK

Ordutegiak

Alfaren azterketak. Has gaitezke gaur Alfaren lanean?

Laneko espazioa

Lanari aplikatutako teknologia

Erakusketaren neurriengatik, Portaleko Erakusketa Aretoan egin zen.

BISITARI KOPURUA / Nº de asistentes	GUZTIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UMEAK	TALDEKA
	1.313	577	630	22	84
EGUNAK/Días	24				
EGUNEKO BATA BESTEKOA/ Promedio diario	54,70				
OIHARTZUN MEDIATIKOA PRENTSAN / Repercusión mediática prensa	Oso ona				

ARTIKULUAK	<p>Eitb Que me estas contando 2020ko irailak 25 bi zati zuzunean Onda Vasca Noticias de Gipuzkoa 23 .9-2020 orrialde bat Diario vasco orrialde bat 2020ko irailak 24 Diaria vasco bi orrialde 2020ko irailak 26 El correo orrialde bat 2020ko irailak 24 El correo bi orrialde 2020ko irailak 26</p> <p>Eta kitto 2020ko irailak 25 Diaria vasco orrialde bat 2020ko urriak 2 El correo orrialde bat 2020ko urriak 2 Eta kitto 2020ko urriak 2 1175. zenbakia</p>
OIHARTZUN SOZIALA / Repercusión social	Oso ona
EKINTZAREN KOSTUA/ Coste de la actividad	<p>Documentazioa ONDARTEZ.....4.840 Ikus-entzunezkoa 1 AHOTSAK.....3.539,25 Ikus-entzunezkoa 2 Janire.....3.012,90 Ilustrazioak Martin Azpilicueta.....1.210 Diseinu grafikoa Vito 021.....3.448,50 inprimatze digitala KOALA336,70 Publizitatea Euskadi irratia.....1.645,60 Errotulazioa Ideiak2.589,40 Taller Natalie Garrido1.330 Enmarkatzea 1 IGA.....171,37 Enmarkatzea 2 IGA.....149,79 Erakusketa grabatzea AKONDIA.....605 Muntaia ONDARTEZ.....3.541,67 Guztira26.520,18€</p>
KOSTUA PARTAIDEKO / Gasto por participante	20,19€

2020ko Europako Ondare Jardunaldia

Ondarea plazara!

2020ko Ondareari buruzko Europako Jardunaldien gaia HEZKUNTZA eta ONDAREA izan da. Horregatik, KONTAIGUZU ONDAREA! HEZKUNTZA eta ONDAREA jardunaldiak ondare mota guztien garrantzian arreta jartzera bultzatu zuen (ahozko trasmisioaren kontatzen, hezeten...)

Industria Armagintzaren Museoak bat egin zuen Ondarearen Europako Jardunaldien ospakizunekin, eta marrazketaren irakaskuntza nabarmendu zuen, haurren prestakuntza funtsezko osagaitzat hartuta, Eibarko Marrazketa Akademian izan baitzuen adierazgarririk handiena. Bertan, Eibarko dekorazio-artearen industriako etorkizuneko ehunka profesional trebatu ziren.

Horretarako, Eibar, lana artea den tokia. Arkatza museoan. antolatu zuen



Marrazketaren irakaskuntzak, haurren prestakuntzari dagokionez, Eibarko Marrazketa Akademian izan zuen adierazgarririk handiena.

Damaskinaketa eta grabaketa lanetan ardaztutako bisita gidatuaren bidez eta akademia hartan egindako marrazkien erakusketa baten bidez, Eibarko ondarean izan zuen eragina ezagutzeko aukera izan dugu.

Bisita amaitzeko, marrazketa dekoratiboko tailerra egin da. Horretarako, Marrazketa Udal Eskolaren eta Leire Kareaga irakaslearen laguntza izan dugu.

BISITARI KOPURUA / Nº de asistentes	GUZTIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UMEAK	TALDEKA
	13	8		5	
EGUNAK/Días	1				
EGUNEKO BATA BESTEKOA/ Promedio diario	13				
EKINTZAREN KOSTUA/ Coste de la actividad	Dinamizazioa EREITEN248,36€				
KOSTUA PARTEIDEKO / Gasto por participante	19,10€				


Jarduera hau Ereiten enpresak eraman zuen aurrera eta 248,36 euroko kostua izan zuen.

2.2.3. WEB site berria

<https://armia-eibar.eus/eu>

2020. urteko lehen hiru hilabeteetan, Armagintzaren Museoaren web orria berritu genuen lau hizkuntzatan. Aurkezpena konfinamendu garaian izan zen.

BITEZ	Web orriaren itzulpena frantsera eta ingelesera	1.878,56€
BITEZ	Web orriaren itzulpena frantsera eta ingelesera	237,31€
Guztira	2.1187€



CALENDARIO
De octubre a junio



TARIFAS
General 3€ (Reducida: 1.50€)

Visita el Museo!

2.2.4. Audio gidak Mugikorretik

2019an eduki berriak egiteko lanei ekin ondoren, audioak sortu ziren, eta museoan dauden audiogidetan sartu ziren bisitarien eskura jartzeko, bai eta museoaren web orri berrian ere, 2020an ere argitaratu baitzen.

Horrela, erabiltzaileen eskura jarri ahal izan genituen eduki berriak, eta, aldi berean, COVID-19ak ezarritako segurtasun-neurriak errespetatu genituen.

<https://armia-eibar.eus/eu/bisitak/audiogidak>



Flexiguia	5 puntu berri gehitu audiogidan	1.778,70€
Flexiguia	1 puntu berri gehitu 4 hizkuntzatan	968,00€
Flexiguia	Zuzenketak	387,20€

Flexiguia

Audiogida eduki berria


11.676,50€


Guztira14.423,20€

2.2.5. Piezak 360º-tan digitalizatzea

Museoko bildumako 34 pieza digitalizatzea, 3D aurkezpenak sortzeko, bereizmen handiko interaktiboak. Pixkanaka pixkana wb sitean sartzen ari gara

https://armia-eibar.eus/eu/bildumak/360-piezak/aggregator?set_language=eu





Lan hauek 360° PHOTO AGENCIk egin ditu 3.267 euroko kostuakin

2.2.6. Aurrekargako armen simulagailua

Armagintzaren Museoa ondarea zabalkudea egiten ari da. Lan egiten dugu espazio erakargarri bat garatzen eta publiko ez-potentzial berriak erakartzen, hezkuntza eta aisia uztartuz. Horregatik, aurten hezkuntza-eskaintza osatu dugu proiektu honekin:

Aurrekargako armen simulagailua

Helburua

Museoan esperientzia berri bat ekarriko duen tresna erakargarri bat sortzea
Aurretik kargatzeko suzko arma eramangarrien teknologia ezagutzea

Edukiak

Hiru su-sistema garatzea errealitate birtualean, bisitariak bildumako hiru piezarekin
esperimentatu eta elkarreragin dezan, aurrekargako arma bat manipulatzeko balego bezala.

Museoko 3 piezari dagozkien 3 su-hartze sistema aukeratu dira, eta horien
funtzionamenduaren animazioa diseinatu da agertoki birtual batean.

Dep 0002 Metxa-fusila

06006 Bustinduyk egindako ehiza-eskopeta miketazko giltzarekin

02955 Ehiza-eskopeta perkusio sistema Ambrosio Uria



2.2.7. Hileko Pieza

<https://armia-eibar.eus/eu/bildumak/piezak>

Hilero funtseko pieza bat hileko pieza gisa nabarmentzen da. Museoko harrera-lekuan kokatzen da toki berezi batean, eta errotulazioa eta piezaren eta haren testuinguruaren gaineko informazio zabala duen QR kodea ere jartzen zaizkio.

Otsaila: Solac markako lapikoa

Martxoa: El casco

Apirila: La paloma eskopeta

Maiatza: Eusebio Zuloagak damaskinatutako eskopeta

Ekaina: pistola- giltza

Abuztua: Orbea markako ume kotxea

Urria: Alfako Murala

Abendua: El casco errebolberrak

2.2.8. Armei buruzko ikusentzunezko grabaketak

Santa Barbara ospatzeko, pandemiaren eta edukiera murriztearen ondorioz, bost mikro kapsula sortu dira aditu batek azal dutako 5 armen gainean, museoa publiko orokorrari hurbiltzeko helburuarekin.

Youtuben eskuragarri.

Grabaketak Yanire Sagredo Hernaezek egindakoak

Gastu guztia..... 2.395,80€

2.2.9. Zabalkundea eta publizitate

Ekintzak

- Cm Gipuzkoa gida sud-est France Udako kanpaina, zenbateko guztira 726€
 - Publizitatea HERRI IRRATIAN 20 segunduko 16 kuñaren emisioa, informazioak eta Ligako EIBARren eta ATHLETICen arteko derbyaren emankizuna (martxoak 21).. 484€
 - Publizitatea HERRI IRRATIAN 20 segunduko 16 kuñaren emisioa, informazioak eta Ligako ATHLETICen eta EIBARren arteko derbyaren emankizuna (irailak 16).. 484€
 - Alfa erakusketaren publizitatea 40 kuñaren emisioa Radio Euskadin eta Euskadi Irratian Strategic Marketing Consulting group S.L.....1.645,6
 - Alfa iragarkia editatu Strategic Marketing Consulting group S.L 181,5
- Guztira3.521,1€**

3. Funtsen kudeaketa

Jasotako dohaintzak

- HONDA PC 50 ziklomotorra Servettak fabrikatua
- Aguirre y Aranzabal eskopeta Kal. 12 527663-1(A)
- Aguirre y Aranzabal eskopeta Kal. 12 568364-2 (A)
- Rolling Block armarako kartutxoa 10 kalibrea. 1887. E.E.U.U.
- “El lobo” markako eskopeta paraleloa Rufino Sándekek fabrikatua, 2288 serie zenbakia duena eta 12 kalibrea
- HZ markako eskopeta, Kal. 12 57910
- HZ markako eskopeta, Kal. 12 60234
- Eder Eskopeta
- Josteko makina maletarekin
- Josteko makina maletarekin
- Josteko makina, 20 modelo, altzarian sartuta

- Alfa josteko makina, altzari eta pedala duena
- LUME garbigailua
- Agustín Larrañaga Katalogoa
- Paulino Larrañagaren margo lana, olio, natura hila
- Jacinto Olaveren kuadroak, bi olio-erretratu
- LUME garbigailua 2. modeloa
- Jose Maria Arratek fabrikatutako eskopeta

Erosketak

- Arizaga enpresako kartela.....200€
- Eskribania V. Buenok damakinatua.....5.445€

Gastu osoa 5.645€

Piezen lagapena

La armas de Eibar en la Guardia Civil erakusketarako piezen lagapena, 2020ko urtarrilaren 13tik 30era Intxaurren *Guardia Zibilaren* 175. Urteurrena dela eta.

	Sig	PIEZAREN DESKRIBAPENA		Balioa €
1	02904	Aurrekargako fusila txispa giltzarekin Mod. 1828	Arma zaharra	1.300
2	02907	Aurrekargako fusila txispa giltzarekin Mod. 1836	Arma zaharra	1.100
3	02968	Aurrekargako zizpa motza (Terzerola) kopekaria Mod. 1839	Arma zaharra	610
4	02961	Aurrekargako karabina kopekaria Mod.1846	Arma zaharra	900
5	02960	Aurrekargako fusila perkusio giltza Mod.1846	Arma zaharra	960
6	02688	Aurrekargako pistola Mod. 1828	Arma zaharra	900
7	06158	Tigre karabina Mod. 1925 Serie zenbakia: A28365	inutilizada	1.000
8	02894	Smith erako errebolberra, Orbea 1884 Serie zenbakia	Arma zaharra	700
9	03133	Merwin & Hulbert erako errebolberra 3744 zen.	Erabilezin bihurtua	60
10	03314	Star pistola erdiautomatikoa Mod. 1920 Serie zen.: 2997	Erabilezin bihurtua	600
11	03313	Star pistola erdiautomatikoa Mod. 1921 Serie zen.: 2648	Erabilezin bihurtua	400
12	02858	Astra pistola erdiautomatikoa 400 15579 zen.	Ezerabilpen-ziurtagirik gabe	400
13	03315	Star pistola erdiautomatikoa Mod. 1931 Serie zen.: 30088	Erabilezin bihurtua	400
14	03244	Star pistola erdiautomatikoa Mod. 1940 Serie zen.: 431501	Erabilezin bihurtua	400
15	03293	Star pistola erdiautomatikoa Mod. S-Súper Serie zen.: 614476		200
16	03184	Star pistola erdiautomatikoa Mod. BM Serie zen.: 1725878	Erabilezin bihurtua	300

17	03270	Star pistola erdiautomatikoak 28DA Serie zen.: 1558864	Erabilezin bihurtua	400
18	03271	Star pistola erdiautomatikoak Mod. 28P Serie zen.: 1607287	Erabilezin bihurtua	400
29	03273	Star pistola erdiautomatikoak Mod. 30 M Serie zen.: 1718680	Erabilezin bihurtua	400
20	03202	Star Firestar pistola erdiautomatikoak M 243 Serie zen.: 2142181	Erabilezin bihurtua	400
21	02844	Astra pistola metrailadorea Mod.F	Ebakita	1.850
22	03174	Star pistola metrailadorea Mod.A Serie zen.: 552849	Erabilezin bihurtua	300
23	03433	Star pistola metrailadorea Mod. MD	Erabilezin bihurtua	1.200
24	11119	Star RU-35 subfusila Serie zen.: 370	Erabilezin bihurtua	2.000
25	11118	Star Z45 subfusila Serie zen.: 44206	Erabilezin bihurtua	800
26	03461	Star Z-70-B subfusila Serie zen.: 110881	Erabilezin bihurtua	600
27	03462	Star Z-84 subfusila Serie zen.: 262595	Erabilezin bihurtua	600
28	11108	Star pistola erdiautomatikoak 28DAm Juan Carlos I.a erregeari eskainia Serie zen.: 1573950	Erabilezin bihurtua	800
29	02864	Star Z45 subfusila ebakita	Erabilezin bihurtua	2.000

Instagram eta Tripadvisor kontuen irekiera

Armagintzaren Museoa orain Instagram eta TripAdvisor sareetan ere aurki dezakezu, azken berriak zabaltzeko.

4.- PRAKTIKAK

Lanbideko kontratua

Abenduaren 1etik aurrera hasi zen museoan lanean Ana Masa Pereiro Lanbideko kontratu-programaren bidez. Kontratazio horrek hiru hilabete eta erdiko iraupena izango du.

Museoaren beraren eta edukiaren berri ematera, publiko berriak erakartzera eta turoperadore-sareekin eta turismo-bulegoekin elkarreragina garatzeko ekintzak planteatzera bideratutako komunikazioa eta marketina da haren lana.

5. TREBAKUNTZA

Prestakuntza: "Gatazken konponbiderako gakoak"
 Molalitatea: Aurrez aurre
 Ordu kopurua: 20
 Prestatzailea: ENBOR KONTSULTOREAK

Prestakuntza: "Ondare bildumen hedapen digitala"
 Molalitatea: On-line
 Ordu kopurua: 15
 Prestatzailea: Uned –Bergara Ikastetxe Elkartuak eta Eusko Ikaskuntza Asmoz
 Fudazioarekin

Prestakuntza: "Bulegoetan segurtasuna eta Osasuna"
 Molalitatea: On-line
 Ordu kopurua: 4
 Prestatzailea: Quironprevencion

6. BALANTZEA

2020ko Diru-sarrera museoan

	SARRERAK ENTRADAS	LIBURUAK LIBROS	OBJ. DENDA	GUZTIRA TOTAL
URTARRILA/ ENERO	291	2		293
OTSAILA/FEBRERO	295	0	30	325
MARTXOA/MARZO	136	1		137
APIRILA/ABRIL				
MAIATZA / MAYO				
EKAINA/ JUNIO	22,5			22,5
UZTAILA/ JULIO	40,5	110		150,5
ABUSTUA / AGOSTO	234,5	19		253,5
IRAILA SEPTIEMBRE	75	9		84
URRIA/ OCTUBRE	127,5		19,5	147
AZAROA / NOVIEMBRE	23			23
ABENDUA / DICIEMBRE	60		5	65
Guztira/ total	1.305	141	54,5	1.500,5

2020ko Dirulaguntzak

EJ / Gobierno vasco	KULTURA	Hedapen plana / plan de difusión	22.749,81
EJ / Gobierno vasco	KULTURA	Bilduma kudeaketa/ Gestión de la colección	7.161,28
GFA/DFG	KULTURA	Hedapen plana / plan de difusión	8.100

GFA/DFG	KULTURA	Inbentariatzea eta zaharberritzea	7.400
Guztira /total			45.411,09

2020ko SARRERAK GUZTIRA

Museoa/ Museo	1.500,50
Dirulaguntzak /subvenciones	45.411,09
Guztira	46.911,59

2020ko GASTUAK GUZTIRA	165.646,60
2020ko SARRERAK GUZTIRA	46.911,59
Aldea	118.735,10

Gastua

Museoaren pertsonala		62.869,59€
Bestelako ibilgetu materiala		2.950,97€
Material arrunt ez-inbentariagarria		4.722,81€
Argitalpenak, Publizitatea eta propaganda		3.521,10€
Bilerak eta Hitzaldiak		735,00€
Kanpoko lanak		46.876,09€
Kanpoko bestelako lanak		
Bisitas gidatuak	797,60€	
Harreraleku lanak	24.909,54€	
Katalogazio lanak	12.447,27€	
Beste lanak	170,63€	
		38.326,04
Museoetako fondoak		
Eskribania V. Buenok damaskinatua	5445€	
Hijos de F. Arizaga krtela	200€	
		5.645,00
GUZTIRA/TOTAL		165.646,60



ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA



Eibar, taller-hiria / ciudad-taller